

BALOREZKO PROPOSAMENA

- Gure proiektua hirugarren adinakoentzat zuzenduta egongo da eta horretarako ondorengo ekintzak garatuko ditugu:
 - Gure zentro soziokulturalean jarduera ugari eskaintzen ditugu, erabiltzaileen beharrei erantzuteko eta zahartze zoriotsu eta osasungarria sustatzeko.
 - **Mantentze kognitiboko jarduerak:** Pertsona helburu izatea eta memoria, arreta emateko eta kontzentratzeko gaitasuna, kalkulua eta hizkuntza lantzea. Jarduera horiek egoiliarren arteko interakzioa sustatzen dute eta arazoak planifikatzeko eta konpontzeko teknikak entrenatzen dituzte. Adierazpen-gaitasuna hobetzen dute.
 - **Terapia okupazionalen jarduerak:** Aisialdiaren okupazio positiboa sustatzen dute. Egoiliarren gaitasunak lantzen dira haientzat esanguratsuak diren jardueren bidez, baita gizarte-trebetasunak ere. Jarduera horiek autonomia sustatzen dute eguneroko jardueretan, eta enpatia eta motibazioa, begi-mugimenduen koordinazioa, adierazpena eta sormena lantzen dituzte.
 - **Ariketa fisikoko jarduerak:** Jarduera horiekin egoiliarrek gorputzaren eskema lantzen dute, beren gaitasun fisikoak indartzen dituzte, muskulu-tonua, ergonomia eta jarrera-higienea hobetzen dituzte. Halaber, positiboak dira orekarako, erortzeko arriskua murrizteko eta adinekoen autonomia bultzatzeko.
 - **Jarduera ludikoak:** Elkarreragin soziala suspertzeko, egoiliarren arteko loturak sortzeko eta hainbat

ingurunetan kontaktu positiboa sustatzeko balio dute. Horien bidez zentzumenak, emozioa eta dibertsioa estimulatzeko dira.

- Beraiek erosoago egoteko espazio bereziak izango dituzte: espazio berde zabalak, kafetegi eder bat, egongelak... helburua beraiek etxean bezala sentitzea izango da lagunartean.
- Gure zentro soziokulturalean 'desfibriladore' bat edukitzea ezinbesteko da. Hau, 'renting'ean daukagu, eta urtero langileok lehen sorospenetarako ikastaroa izango dugu. Oso garrantzitsua ikusten dugu formakuntza hori izatea gure zentroan hirugarren adineko pertsonetan oinarritzen delako.
- Gure zentroan kafetegi bat egongo da; bertan gosariak, bazkariak, askariak eta afariak eskainiko ditugu publiko guztiarentzat.
- Jarduerak egokituta egongo dira adin tartearen eta egoera fiskoarenean arabera.
- Gure proiektua garatzeko sozietate kooperatibo eran sortuko dugu; irabazi asmorik gabeko entitatea izango da, gure helburu nagusia guretzako lana izateaz gain, gizarteari on egitea izango da. Hirugarren adinekoentzat zentro soziokulturala izango da.
- Momentu puntual batzuetan kanpoko pertsonala kontratatu behako dugu; langabezia dagoen langileak kontratatuko ditugu.
- Durangaldeko Tabira auzoan kokatuta egongo da; zona berdea, zabala eta baketsua nahi ditugun ekintzak aurrera eramateko.
- Orduetgia beraientzako egokituta egongo da; Aste osoan egongo da zabalik, goizeko 9:30 -20:00tara (egun berezietan luzatuko dugu).

- Zapatu arratsaldeetan ekintza desberdinak antolatuko ditugu; Dantza saioak, karaokeak...
- Hilean behin irteera kulturalak antolatuko ditugu; museo desberdinetara joatea (Guggenheim Bilbao Museoa, Arte Ederretako museoa, Balentziaga museoa...) antzerkiak, kontzertuak, inguruko herriak ezagutu...
- Ekintza bereziak antolatuko ditugu egun berezietan:
 - Urtebetetzetan askaria dohainik emango diegu, ‘zorionak zuri’ abestuko diegu musikarekin batera eta beraien familia gonbidatuko ditugu.
 - Inauterietan gure tailerretan egindako mozerroekin lehiaketa bat antolatuko dugu eta irabazleak sari berezi bat jasoko du.
 - Gabonetan:
 - Gabonetako abestiak kantatzea
 - Gure zentroa apaintzea
 - Galletak prestatzea
 - Postal bat idaztea maite duten norbaiti
 - Gala afari bat prestatuko dugu
- Eraikin osoa ezinduentzako egokitua dago:
 - -Itsuentzako: zentro guztian idatzi guztiak brailen idatzita egongo dira, komunetako xaboi poteak ere.
 - Ez-gaitu fisikoentzako: ate eta espazio zabalak ditugu.
 - sarreretan barrera arkitektoniko guztiak kendu ditugu.
- Gure zentroko langileak etengabe harremanetan egongo dira Durangaldeko “Gizarte Zerbitzuekin” eta “Osakidetzarekin”; Gure bezeroren bat beraien zerbitzua behar badute gu berehala harremanetan jarriko ginateke.
- Gure jatetxeko soberakinak ez ditugu botako, Durangaldeko Caritas-era eramango dugu beraiek behar dutenen artean banatzeko.